



Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko Araugintza Plana

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA		
MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru dekretua	Foru dekretua, informazioaren segurtasunaren politika eta antolaketa arautzen dituena.	Informazioaren eta sistemen segurtasuna bermatzea, Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera Erakundea NIS2 zuzentaruaren eta datuak babesteko erregelamendu orokorraren eskakizunetara egokitzea Arriskuak kudeatzeko eta datuak babesteko rolak, erantzukizunak eta barne prozedurak definitzea
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: 36/2017 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituena	Arautzea eta eguneratzea funtzio publikoaren arloan lan baldintzei buruz indarrean dagoen araudia
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: 26/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean telelana ezartzeko araudia onesten duena	Arautzea eta eguneratzea funtzio publikoaren arloan telelanari buruz indarrean dagoen araudia
Foru agindua	Foru agindua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia onetsi eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia onesten duen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Agindua aldatzen duena.	Arautzea eta eguneratzea funtzio publikoaren arloan lan baldintzei buruz indarrean dagoen foru araudia
Foru agindua	Foru dekretua, zeinaren bidez onesten baita 2026-2027ko kudeaketa plana, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoko bigarrena, zazpigarren plangintzaldirako (2023-2027)	Onestea 2026-2027ko kudeaketa plana, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoko bigarrena, zazpigarren plangintzaldirako (2023-2027).
Foru agindua	Foru agindua, eraldaketa digitalerako eta IKTen kudeaketarako esparru estrategikoa onesten duena	IKTen digitalizazioan eta kudeaketan lehentasunak eta ildo estrategikoak ezartzea Teknologia eta zibersegurtasun proiektuetarako irizpideak definitzea





OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, 2027ko Aurrekontua Gauzatzekoa	Betetzea Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren xedapenak eta onestea, besteak beste, Arabako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontuak.
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko 2025eko Kontu Orokorrari buruzkoa	Betetzea Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren xedapenak
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, 2027. urterako zerga neurriei buruzkoa.	Hobetzea Arabako zerga araudiaren zenbait alderdiren erregulazioa, beste arau esparru batzuetan izandako aldatetara egokituta, eta egungo testuinguru sozioekonomikoan beharrezko irizitako neurriak hartzea.
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, egonaldi turistikoaren gaineko zergari buruzkoa	Ordaintzea turismo jarduerak Arabako udalerrietako udal kutxetan eragin duen kostu igoera, kalitatezko zerbitzu publikoak mantentzeko Beharrezkoak diren politikak ezartzea turismo jarduera modu harmonikoan garatzen jarraitu ahal izateko, horrek epe ertain eta luzean ekonomia eta ingurumen oreka larriki hondatzeko arriskurik eragin gabe.
Foru dekretua	Foru dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.	Ibilgailuen eta ontzien batez besteko prezioen taulak onestea
Foru dekretua	Foru dekretua, 2026ko lehentasuneko jarduerak onesten dituen	Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 31.1 artikulua
Foru Dekretua	Foru Dekretua, balio erantsiaren gaineko zergaren 2026rako araubide erraztuko moduluak eguneratzen dituen	Araubide erraztuko moduluak eguneratzea
Foru dekretua	Foru dekretua, arautzen dituen ondare elementuen eguneratze koefizienteak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren ondare irabaziak edo galerak kalkulatzeko.	Onestea pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren esparruan egiten diren eskualdatzei aplikatu beharrezko eguneratze koefizienteak
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: 40/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren araudia onesten duena, eta 41/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, sozietateen gaineko zergaren araudia onesten duena.	Egokitzea PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak zerga horien foru arauetan ezarritako jarraibideetara, zuzenketak eta hobekuntza teknikoak eginez haien idazketan, Zerga Sistemako Zerga Jakin Batzuk Berrikusteko apirilaren 9ko 3/2025 Foru Arauan jasotako lege mailako aldaketan ondoan.



BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa	<p>Bermatzea berdintasunerako eskubidearen aplikazio praktiko eta eraginkorra, foru sektore publikoak desberdinkeria desagerrarazteko asmoz zehaztutako politikak eta jarduerak garatu eta hobetzeko mekanismo eta neurri zehatzen bidez. Horretarako, ikuspegi zeharkako eta intersektzional bat erabiliko da, politika publikoen esku hartze eremu guztietan, haren printzipio eta balioetan, bai antolaketako alderdietan txertatuko dena.</p> <p>Berdintasunaren arloko foru politikak indartzea, finkatzea eta sustatzea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onesten du) jasotako aginduak zehaztuz eta gure lurraldera egokituz.</p> <p>Arauketaren eta Berdintasunerako V. Foru Planaren arteko uztartze egokia ahalbideratzea.</p>
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, araugintzako herri ekimena arautzen duena	Araugintzako herri ekimena arautzen duen erregulazioa eguneratzea eta egokitzea, erakundeak herritarrengana gehiago hurbiltzeko eta herritarrei dagozkien gaietan parte har dezaten errazteko.
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa sortu eta arautzen duena	Administrazio prozeduretan interesdunak diren pertsonen ordezkartza egiaztatzea, administrazio publikoen aurrean haien izenean, aldez aurretik beste pertsona baten aldeko (ordezkaria) apud acta ahalordea aurrez aurre edo elektronikoki borondatez eginda, bere izenean izapideak egin ditzan. Hori guztia Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikulua garatzeko.
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2008 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, Ohore eta Goraipamen Araudia onesten duena.	<p>Araua berrikustea, indarrean dagoen ohoreen eta goraipameneren erregistroa handitze eta antolatze aldera, haren denbora eremua XX. mendearen hasierara arte luza dadin eta ohoreen errebotatzearen erregulazioa memoria historiko eta demokratikoari eustera egokituta gera dadin.</p> <p>Hartara, Arabako herritarrek eskuragarri izango dituzte orain arte eman diren titulu, ohore eta goraipamen guztiak, bai eta haiei eragiten dieten gorabeherak ere, hala nola haiek kendu izana.</p>
Foru dekretua	Foru dekretua, Eskuordetzeen Erregistroa sortu eta arautzen duena	Segurtasun juridiko handiagoa eskaintzea, eskuordetze egintzak, haien errebotatzea eta, hala badagokio, gorabeherak erregistro batean jasota. Hori guztia, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 59.8 artikulua erregelamendu bidez garatzeko.
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak arautzen dituena.	Partaidetzako aurrekontuen prozedura arloko eta funtsezko alderdiak arautzea, aurrekontuei berme handiagoak eta prozedura orokorrarekiko lotura hobea emateko.



BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru dekretua	Arabako Foru Aldundiaren Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa	Sortzea eta arautzea Arabako Foru Aldundiaren Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa, hau da, administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta ez dauden interesdunen identifikazioa eta sinadura elektronikoa egiteko eta dokumentuen kopia kautoak emateko funtzionarioena.
Foru dekretua	Foru dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Arabako Foru Aldundiaren Ordezkarien Erregistroa, hau da, Arabako Foru Aldundiari lotutako edo haren partaidetza duten erakunde, organismo eta organoetan aldundiak dituen ordezkariena.	Sortzea eta arautzea Arabako Foru Aldundiaren Ordezkarien Erregistroa, hau da, Arabako Foru Aldundiari lotutako (foru sektore publikoa) edo haren partaidetza duten erakunde, organismo eta organoetan (foru sektore publikokoak ez direnak) aldundiak dituen ordezkariena, Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan dituen ordezkariet buruzko informazio bateratze aldera.

**EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA**

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru dekretua	Arabako Lurralde Historikoko parke naturaletako zirkulazioa arautzen duen foru dekretua.	Arabako Lurralde Historikoko parke naturaletan zirkulatu ahal izateko baldintzak ezartzea (baimenak, mugak, arau hausteak, zehapenak)
Foru dekretua	Foru dekretua, Natura Ingurunearen Zuzendaritzaren prezio publikoak arautzen dituena	Natura Ingurunearen Zuzendaritzako zerbitzuen eskumenekin lotutako jarduera edo jarduketengatiko prezio publikoak arautzea.
Foru dekretua	Foru dekretua, partzuergo, udal eta administrazio batzarrentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onesten dituena, altako hornidura sarean hobekuntzak egiteko.	Ur partzuergoei, udalei eta administrazio batzarrei zuzendutako dirulaguntza berriak arautzea, altako hornidura sarean hobekuntzak egiteko, eta urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretura egokitzeko asmoz.(3/2023 Errege Dekretua, Kontsumorako uraren kalitatearen, kontrolaren eta horniduraren irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituena)
Foru dekretua	Foru dekretua, ingurumen jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntzak, administrazio batzarrei, udalei eta enpresa pribatuei zuzenduak, emateko oinarriak arautzen dituena.	Ingurumen jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntzei buruzko foru dekretu berri bat onestea, enpresa pribatuentzako (komunitate energetikoak) hirugarren lerro bat sartzeko, egun dauden beste bi lerroak (administrazio batzarrak eta udalak) mantenduta eta integratuta.



GIZARTE POLITIKEN SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru dekretua	Foru dekretua, zeinaren bidez indargabetzen baita otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu eta antolamendu eta erregistro arauak ezartzen dituen.	Gizarte Zerbitzuen Erregistroei buruzko uztailaren 24ko 155/2012 Dekretuak inplizituki indargabetu duen dekretu bat indargabetzea
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen duena, bai eta, baldintza horiek betez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.	Dekretua egungo arau eta prozedura errealitatera eguneratzea, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko kudeaketa hobetzeko
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Diputatuen Kontseiluaren 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, arautzen dituen mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalak laguntzeko prestazio ekonomikoak, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoak eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak. Hobetzea mendekotasuna dutenentzako prestazio ekonomikoaren kudeaketa Arabako Lurralde Historikoan	Hobetzea mendekotasuna dutenentzako prestazio ekonomikoaren kudeaketa Arabako Lurralde Historikoan
Foru dekretua	Foru dekretua, arreta goiztiararen zerbitzua arautzen duena	Arreta goiztiararako sarbide eta arreta baldintzak ezartzea
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoan bizimodu independentearen eredu arautzen duena	Bizimodu independentearen ereduaren arloko prestazioak garatzea Araban: laguntzari babesa emateko dirulaguntza eta gainerako prestazioak.
Foru dekretua	Foru dekretua, sostengu laguntzak arautzen dituen	Sostengu laguntzak arautzen dituen foru araudia eguneratzea
Foru dekretua	Foru dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamendu araudi berria onesten duena	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamendua modernizatzearen bigarren fasea egitea
Foru dekretua	Foru dekretua, gizarte inklusiorako baliabideetarako sarbidea arautzen duena	Arautzea gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen Arabako Foru Aldundiaren mendeko gizarte zerbitzuak eskuratzeko modua
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, onespina ematen diena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoei.	Aldatzea eta eguneratzea Prezio Publikoen Foru Dekretua (Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, onespina ematen diena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoei)
Foru dekretua	Foru dekretua, indarkeria matxistaren biktimentzako baliabideak arautzen dituen	Indarkeria matxistaren biktimentzako foru baliabideak arautzea



GIZARTE POLITIKEN SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru agindua	Foru Agindua, laguntza txakurren trebakuntzan kaudimen aitortua duen erakunde espezializatuaren izaera lortzeko betekizunak arautzen dituena.	Arautzea zer baldintza bete behar diren Arabako Foru Aldundiak laguntza txakurrak trebatzeko erakunde baimendu gisa aitortzeko. Erakunde horrek egiaztatu behar du erregistratuko den txakurrak jaso duela desgaituei lagun egiteko, haiek gidatzeko eta haien laguntza emateko eta titular eskatzaileak baduela aski prestakuntza eta jakintzarik txakurrak lagun egin diezaion, gida dezan eta laguntza eman diezaion.



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Arabako Mugikortasun Agintaritzarekin sinatutako hitzarmena onesten duena.	Berritzea, Arabako Mugikortasun Agintaritzaren Partzuergoa eratzen ez den bitartean, Araban lankidetzarako harreman foro bat izateko hitzarmena. Foro horrek bidaiarien garraio publikoaren arloan eskumena duten administrazio guztien partaidetza eta lankidetzeta mekanismoak artikulatuko ditu, Arabako Lurralde Historikoan garraio publikoaren eta garraibide aktiboen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko.
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, onespina ematen diona Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzu bateratuaren kudeaketa kooperatiborako hitzarmen berriari.	Egungo beharretara egokitzea aurreko hitzarmena, 2021eko martxoaren 12an sinatua, 2025eko uztailaren 1ean emakida berria abian jarri ondoren, eta bi foru aldundiek konpromisoa hartzea emakida osatzen duten lerro guztiak modu kooperatiboan eta genero berdintasunaren ikuspegitik kudeatzeko
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoan bidaiariak garraiatzeko herri arteko foru zerbitzu publikoen arautegia aldatzeko proiektuari.	Aldatzea, hautemandako beharretara egokitze aldera, errepide bidezko erabilera orokorreko bidaiari garraiorako Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko zerbitzu publikoa emateko araudia, erabiltzaileek eta zerbitzuak ematen dituzten enpresek nahitaez bete beharrekoa.
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko bideak erabiltzeagatiko ordainketa arautzen duena	Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko bideen kudeaketa eta finantzaketa eredu berrirako oinarriak zehaztu, ezarri eta arautzea.
Foru dekretua	Foru dekretua, Lanerako mugikortasun planak eta hiri mugikortasuneko planak egitea sustatzeko laguntzen lerroa arautzen duena.	<p>Onestea enpresentzako laguntzen lehen lerro bat, lanerako mugikortasun planak egitea sustatzeko eta, horrela, lantokietara egiten diren joan etorriak gero eta jasangarriagoak izan daitezen lortzeko.</p> <p>Onestea bigarren laguntza lerro bat, Arabako Lurralde Historikoko udalerriek eta kuadrillek Mugikortasun Jasangarriaren II. Planarekin lerrokaturiko hiri mugikortasuneko planak egin ditzaten sustatzeko, mugikortasun harremanak antolatu eta planifikatzeko aldera.</p>

**LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA**

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru Arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa	1995eko araudia eguneratzea, egungo errealitate juridiko-administratibora egokitzeko, eta kontzeju karguetarako hauteskunderi buruzko araudia bateratzea
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Kuadrillei buruzkoa	Indarrean dagoen arauaren hizkuntza terminologia ez-sexistara eguneratzea
Foru dekretua	Foru dekretua, kontzejuetako karguak betetzeagatik jaso beharreko diru kopuruak arautzen dituenak.	Arautzea karguak betetzen dituztenek laguntzak eta kalte-ordainak jasotzea, ordenatuz eta homogeneousatuz
Foru dekretua	Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei, Obra Txikiak egiteko Programaren kontura, norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.	Laguntza lerro hau arautzen duten oinarri orokorrak onestea
Foru dekretua	Foru dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako programaren kontura, norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak	Laguntza lerro hori arautuko duten oinarri orokorrak onestea



NEKAZARITZA SAILA

MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, mendiei buruzkoa	Mendiei buruzko arau berri bat garatzea, egungo beharretara egokitua, Arabako Lurralde Historikoko baso aprobetxamenduen kudeaketari buruz etorkizuneko ikuspegia kontuan izanda
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Gobernu Kontseiluaren 15/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, landa bideetarako laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntzen 2023ko deialdia onesten dituen.	Toki erakundeei zuzendutako laguntza lerro berri bat garatzea, nekazaritzako ustiatzei zerbitzua emateko azpiegitura osagarriak jartzeko dirulaguntzak emateko
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzea onesten duena.	Foru dekretu bakar batean biltzea mahasti zaharren eta mahasti nabarmenen katalogoa
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: 19/2025 Foru Dekretua, onespina ematen diena Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko laguntza lerro espezifikoa baten oinarri arautzaileei eta 2025eko deialdiari	Foru dekretu bakar batean biltzea mahasti nabarmenen eta mahasti zaharren katalogoa
Foru dekretua	Honako foru dekretu hau aldatzen duen foru dekretua: 13/2015 Foru Dekretua, laborategiaren eta Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko beste zerbitzu batzuen analisei aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituen	Laborategiko prezioak eta eskaintza analitikoak arautzen dituen dekretua eguneratzea
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoan hondakin erretzeak arautzen dituen	Arabako Lurralde Historikoan arlo horretan egun indarrean dagoen araudia bateratzen duen foru dekretua garatzea
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoko onura publikoko mendietatik igarotzen diren kirol probak arautzen dituen	Arabako Lurralde Historikoko onura publikoko mendietatik igarotzen diren kirol probetarako baimena eskatzeko eta baimentzeko izapidea arautzen duen foru dekretua garatzea
Foru dekretua	Foru Dekretua, onespina ematen diena larre azaleretan egindako ingurumen jardunbide egokiak konpentsatzeko laguntzen oinarri arautzaileei.	Arabako Lurralde Historikoko larre azaleretan egindako ingurumen jardunbide egokiak konpentsatzeko laguntzak arautzen dituen foru dekretua garatzea.
Foru dekretua	Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatikoa laguntzen oinarri arautzaileei buruzkoa.	Babestekoak diren laboreak gehitzea labore ureztatu jasagarrien lerroan.



KULTURA ETA KIROL SAILA		
MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru arau proiektua	Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko jarduera arkeologiko eta paleontologikoak arautzen dituen	Esku hartze arkeologikoak eta paleontologikoak baimentzeko eskaerak bete behar dituzten baldintzak zehaztea. Baimen bat jasotzeko dakartzan betebeharrak administratiboak eta arkeologiko/paleontologikoak zehaztea. Ustekabeko aurkikuntza bat egiteak dakartzan betebeharrak zehaztea. Araudian jasotakoa indarreko legedira egokitzea. Aipaturako araudi hori Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea egokitzea
Foru dekretua	Foru dekretua, onespina ematen diona Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei eta 2026ko deialdiari.	Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko irizpideak ezartzea eta 2026ko deialdia onestea, Arabako Foru Aldundiak, Kirolaraba Fundazioak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk kolektibo horri laguntzeko garatzen dituzten planetan parte hartu ahal izan dezaten
Foru Dekretua	Foru dekretua, Arabako Foru Aldundiaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika onesten duena	Foru administrazioak dokumentu elektroniko benetakoak, fidagarriak eta eskuragarriak sortzeko eta kudeatzeko erabili beharko dituen printzipioak ezartzea, horien ezarpenarekin, berreskurapenarekin eta kontserbazioarekin lotutako alderdiak zehaztuta. Dokumentu elektronikoaren bizi ziklo osoan zehar dauden prozesuak eta ekintzak eta prozesu horiei lotutako antolamendu erantzukizunak adieraztea.
Foru Dekretua	Foru dekretua, Kultura eta Kirol Sailaren prezio publikoak onesten dituen	Kultura eta Kirol sailaren prezio publiko hauek arau xedapen bakar batean arautzea: <ul style="list-style-type: none"> · dokumentuen eta argazkien kopiagintza eta erreproduktzio zerbitzuak · kultura ekitaldietarako sarreren salmenta · Kultura Etxeko aretoak lagatzea · foru museoetako oroigarri eta sustapen artikuluen salmenta · argitalpenak editatzea



KULTURA ETA KIROL SAILA		
MAILA	IZENBURUA	HELBURUA
Foru agindua	Foru agindua, onespina ematen diona Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoan eta kirolean gertatzen den indarkeriatik babesteko protokoloari.	<p>Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programako jardueretan parte hartzen duten haurrentzat ingurune seguru eta babeslea bermatzea, bai eta programa horretan sartuta ez egon arren, Arabako Foru Aldundiak baimenduta dauden jardueretarako ere. Horrela, haurrek eta nerabeek edozein indarkeria motaren aurrean beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarrizko eskubideak bermatuko dira</p> <p>Haurren aurkako indarkeriaren prebentzioaren arloan gutxieneko betetze estandar batzuk definitzea eta eskatzeko modukoak egitea, Arabako eskola adineko jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten profesional eta kirol erakunde guztiek bete ditzaten.</p> <p>Arabako eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren sarea osatzen duten pertsonak informatzea, prestatzea eta sentsibilizatzea adingabeen aurkako indarkeriaren arloan, egoera horiek identifikatzeko, prebenitzeko eta saihesteko jarraibideak emanez, eta erakundeei eta profesionali tresnak ematea sortzen diren kasuak ahalik eta azkarren eta eraginkortasun handienarekin artatzeko eta konpontzeko.</p> <p>Adingabeen segurtasuna, osotasuna eta duintasuna bermatzea, egoera horiei une oro aurre egiten dietenak babesteko kasu bakoitzean bidezkoak diren neurriak aplikatzea, egokiak diren kautelazko neurriak sartuta, indarkeriarekin amaitzea eta, hala badagokio, dagozkion zehapen neurriak aplikatzea.</p>